



LAKARRI - ARHANE - SARRIKOTAGINE

Bosmendieta

Distantzia 13,9 km	Desnibela 1010 m	Iraupena 6h00	Tipologia Joan-jina	Zedarriak PR horiak
------------------------------	----------------------------	-------------------------	-------------------------------	-------------------------------

Atharratzetik, Altzaiko bidea hartu. Herri hori pasa eta, zubia eta Arhaneko bidegurutzea baino lehen autoa eskuineko aparkalekuan utzi.

GPS datuak: **UTM : 669911 - 4773082 Lat/Long : 43.09138/0.91234**

Ibar-eskuina (Altzai/Lakarri) kasko desberdinez inguratuta dago. Horien artean, Bosmendietakoa bezala, bereizgarriak badira. Bost mendixkak agertzen dira eta haien azpian, aska belartsu txiki goxo eta estetiko bat bada. Bista ederreko kasko batetik Basabürüko eta hurbil den Biarnoko mendiak ager-rarazten dituen bi orientazio mahai badira. Alabaina, goratasunetara eramaten gaituen oihanean eginen den patarra zaindu beharko da, neketsua izaten ahal baita. Ibar desberdinak baino goragoak diren bidexketan protohistoriako artzainak errazki irudikatzen ditugu. Han hor, atzemanak izan diren muinoak, hilobiak tapatzen dituzten lur gainak, lekuko ditugu.



1. ZATIA > Aparkalekua

UTM : 669911 - 4773082

Zubia pasa eta Lakarrirantz, 200m-z bigarren mailako eskuineko errepidea hartu. Metro batzuentzat ezkerrean den lehen pista hartu.

2. ZATIA > Bidexka


UTM : 669789 - 4772914

Laborantza eraikineko aparkalekua baino lehen ezkerrean atzemanen duzue. Berehala igotzen da eta harriar markatua da. Horretarako heze denean, adi egon behar da. Ordoki handi batean diren usategien aitzinetik pasa, eta pentze handi batean den metalezko hesira arte joan. Hau iragan. Bidexkak pentze baten zeharkatzeko oihanean goiti joanez aurrera eginen du. Borda hondamenerantz joan.

3. ZATIA > Ibarren borda

UTM : 670323 - 4771515

Atexka pasa eta eskuinean den pista hartu. Mundrunatua den malda txiki baten ondotik, pista bukatzen da (jabego pribatuan ez sartu). Eskuinean bidexka hartu. Hau beti segitu. Desmaila ez da handia, eta orokorki aldapa ez da azkarra. Arretalephoko etxe hondamenen aitzinean pasa.



4. ZATIA > Bidegurutzea

UTM : 669229 - 4770466

Goranzko eskuineko bidexka hartu. Arretalephotik hurbil atzemanen duzue. Patar zailean zehar, pasarte lasaigoak badira. Lepo txiki bat pasatu eta bidexka bakarrean segitu. Oihantetik ateratzean, mendiarte belartsu honetan jarraiki. Altzai/Lakarriko ibarraren gainbegiratzeko, lepo txiki bat hartzen du. Aldaba goxo baten bidez itzulika ari den bidexka nagusian egon. Bosmendietako tontor bereizgarrien azpitik pasa. Azken mendixka eta auto bidea gabe, ezker hartu. Orhiko puntari so, Basaburuko mendiak begi-bistan ukanen dituzue. Ezkerreko tontorrera igo eta segitu. Arbola batzuk pasa.

5. ZATIA > Orientazio mahaiak

UTM : 667175 - 4769079

Bi mahaietan bista harrigarriak eta esplikapenak. Hartutako tontor bidetik jaitsi. Malda pikoa ez da lanjerosa. Lepoan, eskuin autoz ibiltzeko bidea gainetik so eginen duen bidexka hartu. Hau bidegurutze baten heinean bateratu eta hartu.

6. ZATIA > Bidegurutzea


UTM : 668066 - 4769217

Ura kanalizatzen duen murre apal baten heinean eta lepora joan aitzin, pistatik atera. Lepo belartsura arte, bidexkatik kanpo hastapen batean, ezker hartu. Bidexka jaisten da eta ondotik ontsa markatua da. Dolinen aitzinean pasa eta eskuinean segitzen dugun gorantz joaten zen ibilbideari lotu. Hau aparkalekura arte segitu.

INTERES GUNEA
❖ Gutxi ezaguna den mendigune baten ezagutzea

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK
- Artzain eremua : hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK
Lakarri, ostatu/jatetxe herrikoia, terraza tipi batekin



Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

ZEDARRITZATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorrie jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↶	↶	↶	◀
Itzul eskuin	↷	↷	↷	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitetz

- Ez zaitetzela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitetzela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitetzela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitetz, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitetz garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitetz emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitetzela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitetz eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezaketek!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- ATHARRATZE
Arhanpia karrika
+33(0)5 59 28 51 28

- MAULE
Jean-Baptiste Heugas karrika
+33(0)5 59 28 02 37

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitetz Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.